



Bigarren eskuko azoka izango da gaur goizean Atsegindegin

HILEKO azkeneko larunbata izanda, bigarren eskuko azoka izango da gaur Atsegindegin. Azoka goizetik eguerdira izango da eta bertan, era guztietako produktuak erosteko aukera izango da. Besteak beste egongo dira: arropak, liburuak, erramintak, oinetakoak, jostailuak... Produktu horiek prezio onean lortzeko aukera izango da. ||

Bola tiraldia bihar Seguran

TXAPELKETAKO bigarren tiraldia izango da bihar Seguran. Joan den igandean izen zen bikotekako txapelketako aurreneko tiraldia Añorgan, eta 26 bikotek hartu zuten parte. Onena Legazpiko Madina-German bikotea izan zen 89 brilarekin. Aurreneko hernaniarrak A. Santos eta M. Retegi izan ziren, 70 brilarekin; segidan ondorengoak geratu ziren: A. Miner eta I. Miner 66rekin, eta M. Burugain eta J. Ugalde 64rekin. ||

❖ ZINEA

'Que fue de los Morgan' helduentzat eta 'Planet 51' haurrentzat

Biterin, helduentzat eta haurrentzat zine emanaldia izango da asteburu honetan ere. Helduek ikusgai izango dute *Que fue de los Morgan* filmea. Gaur 19:30etan eta 22:30etan izango da ikusteko aukera; eta bihar, 19:30etan. Hurrek berriz, *Planet 51* ikusteko aukera izango dute, euskaraz, gaur eta bihar 17:00etan. ||

◆ SASKIBALDIA

Teklan Hernanik Kostkas taldearen kontra jokatu du gaur etxean

Senior mailako Teklan Hernanik taldeak Kostkas taldearen kontrako neurketa izango du. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera izango da, Hernaniko kiroldegian. Kadeteek Gabanara eta Loiola Indautxu taldeen kontra jokatu dute, Hernanin baita ere. Kadete A taldeak bihar jokatu du, 10:00etan, eta kadete B taldeak 16:15etan. ||

GAUR KRONIKAN

Atez atekorako zintzilikatzeak /2

Jasota bezala eta laburrak /2

Aintzina musika taldea /3

KIROLAK: gimnasia erritmikoa, futbola, pelota... /6-7

Txantxangorri /8



Karabelen parkina egiten ari dira 100 plaza ingurukoa

TXANTXILLAKO parkina otsaila hasieran desagertuko da eta hori gertatzen denerako, parkin berria prestatzen hasi dira Karabel auzoan. Asteazkenean hasi zituzten lanak eta espero da hemendik hamar bat egunetarako bukatzea. Parkin hori 100 plaza ingurukoa izango da. /2



GAUR IREKITZEN DUGU!
IPARRAGIRRE
TOLARE SAGARDOTEGIA

IGANDE
EGUERDITAN
IREKITA

Karabelen 100 plaza inguruko parkina ari dira egiten Txantxillakoa kentzen denerako

UTE-Txantxillak jakinarazi duenez, gutxi gorabehera 10 egun barru irekiko dute Karabelgo parkina eta mantendu egingo da bertako lurrak garatzen hasten diren arte behintzat.

TXANTXILLAKO lanak direla eta, bertako parkinaren azken zatia otsaila hasiera inguruan desagertuko da eta UTE-Txantxillak jakinarazi duenez, Karabelen parkina egiten ari dira 100 plaza inguruko. Asteazkenean hasi zituzten lanak eta aurreikusten dutenaren arabera, 10 egun barru irekiko dute. Eta gaineratu dute: «gutxi gorabehera Txantxillako parkinaren azken zatia ere orduan itxiko dugula pentsatzen dugu;

beraz, bi gauzak batera gertatuko direla esan dezakegu».

Karabelgo parkina mantendu, berez

Karabelgo lurrak garatzen hasten diren arte behintzat, Karabelgo parkina mantendu egingo dela azaldu dute UTE-Txantxillatik. Sandiusterrri kalea aparkaleku bilakatzen denean, ordea, ez dakite ziur Karabelgoak jarraituko duen. «Hori Udalak ikusiko du aurrerago». ||



Asteazkenean hasi ziren Karabelgo parkina egiten.

Zintzilikatzeko kokalekua Udalarekin adosteko epea irekiko da etzi

Udalak etxebizitza bakoitzerako duen proposamena jakinaraziko du astelehenean. Bizilagunak ez badaude ados, proposamen berriak egiteko aukera izango dute otsailaren 19ra arte.

ASTELEHENEAN Udalak jakinaraziko du bere proposamena atez ateko hondakin bilketarako, etxebizitza bakoitzean jarri behar diren zintzilikatzeko kokalekuen inguruan. Eta bizilagunek Udalak proposatutako tokia zein den jakiteko aukera izango dute atez ateko bulegora joanez gero (Kardaberaz kalea, 25).

Horrez gain, Udalak proposatutako kokapenarekin ados ez dauden bizilagunek beste leku bat proposatzeko aukera izango dute otsailaren 19ra arte. Proposamen berria etxepeko bileran adostua izan dela ziurtatzen duen dokumentu sinatua entregatu beharko dute.

Otsailaren 20tik aurrera, atez ateko bulegoko infor-

matzaileak harremanetan jarriko dira aldaketa proposatu duten bizilagunekin, Udalaren erabakiaren berri emateko. Eta martxoaren erdialdera zintzilikatzeko behin betiko kokapena jakinaraziko du Udalak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, honako helbidean aurkitu daiteke: www.hernaniatezate.net. ||

❖ SANTA BARBARA ELKARTEA

Mus txapelketarako izena eman dezakete bazkideek

Santa Barbara elkarteko bazkideentzat mus txapelketa ari dira antolatzen eta dagoeneko izena eman daiteke. Epea irekita egongo da otsailaren 20ra arte. ||

❖ KAROBI ELKARTEA

Barrikotean izena emateko azken eguna bihar

Otsailaren 12an, barrikotea izango da Karobi elkartean eta izena emateko azken eguna bihar izango dute bazkideek. Astelehenean aurrera, gainerakoek izango dute aukera izena emateko. ||

❖ ASTIGARRAGA

'Ate-joka' antzezlana gaur

Astigarragako kultur etxean Ate-joka antzezlana izango da ikusgai gaur, 22:00etan, 4 euroren truke. Antzezlana Txalo produkzioarena da eta parte hartzen dute aktore hauek: Iker Galartza, Joseba Usabiaga eta Sara Cozar. ||

❖ HAMAİKABAT

Zintzilikarioen inguruko zalantzak argitzeko eskatu dio Udalari

HAMAİKABAT alderdiak jakinarazi duenez, bizilagun asko joan zaizkie zintzilikarioen gaiarekin kezkatuta, eta ondorioz, idatzi bat sartu zuen udal errejistroan, urtarrilaren 22an, zenbait zalantza argitzea eskatuz.

Bertan, udal teknikariei legezko txostena egiteko eskaera luzatu dute, barne arautegiko 59-2 artikulua arabera, ondoren azaltzen diren gaien buruz: 1) Etxe partikularretan zabor bilketa egiteko aurreikusitako zintzilikarioak jartzeko aplikatu behar den legedia. 2) Bizilagunek ukatzeko duten eskubidea. 3) Ukatzeko bete behar dituzten baldintzak. 4) Ukatuz gero, Udalak aurreikusitako beste aukerak. ||

🗞️ Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Jordi Colomerri erantzunez

Azken aste hauetan Villasar de Marren zaborren inguruan gertatutakoaz gauza asko esan dira eta egokia ikusi dugu, bertako bizilagun batekin hitz egin ondoren, honako gutun hau idaztea.

Vilassar de Marren, 2004 urtean (atez ateko bilketa martxan zegoenean) Urbaser enpresak (zaborren bilketaren ardura zue-nak) 67 pertsona zituen lanean eta Udalak beste 6. Guztira 73 lagun zaborren kudeaketan lanean. Hau, Gizarte Segurantzaren datuei esker erraz frogatu daiteke.

Egia da Vilassar de Marren bi pertsona zeudela, besteak beste, inspektzio lanak egiten. Egia da baita ere, zabor biltzaileen arduraz zela, zaborra behar bezala banatua zegoela egiaztatzea (baina oso gubxitan geratzen zen poltsaren bat jaso gabe eta gehienetan zabor guztia nahastua joaten zen).

Guztiz faltua da atez ateko bilketa proposatu zuen alderdiak irabazi zituela bilketa sistema hori martxan jarri ondorengo hauteskundeak. Atez ateko bilketa martxan jarri ondoren egindako hauteskundeak CiUk irabazi zituen, baina PSC/PSOE, ERC eta ICVren arteko itunari esker, PSC/PSOEk lortu zuen alkatetza. Aipatu behar da, atez ateko bilketaren inguruko desadostasunak zirela eta, aipatutako ituna bertan behera geratu zela laster.

Atez ateko bilketa sistema aplikatu zen bitartean, Vilassar de Marren ezohikoak diren zenbait gertakizun aipatu behar dira, sistema horrek sortutako iskanbila sozial eta politikoa frogatzen dutenak: Zabor bilketaz arduratzen ziren langileek greba egin zuten. Atez ateko bilketaren aurkako manifestazio bat egin zen eta Vilassar de Marren inoiz ez bezala N-II errepidea ere moztu zen manifestazio hartan. Atez ateko bilketa iraun zuen urte gutxitan Udaleko ingurumen saila lau zinegotzi ezberdinek kudeatu zuten dimisioengatik. "Larrialdi puntuak" deitutakoak, birziklapenik gabeko zabortegietan bihurtu ziren, horrek herritarren artean haserrea eraginda.

Jordi Colomerren idatzian, Catalunyan atez ateko bilketa egiten duten 85 udal daukela aipatzen da. Baieztapen horrek errealitatea itxuragabetzen du. Argi azaldu behar da, herri guzti horiek oso bixtanle gutxiko herriak direla eta herrietatik oso gutxitan jasotzen direla atez ateko zaborren frakzio guztiak (organikoa, papera, ontziak, beira eta errefusa). Herri hauetatik gehienetan edukiontzia mantentzen dituzte eta atez ateko zaborren frakzioen bat jasotzen dute, ez guztiak. Eta garrantzitsua, herri horiek ia eraikin bertikal gabekoak. Argi geratu da, zaborrak biltzeko atez ateko sistema, ekonomikoki bideraezina dela, batez ere tamaina batek gorako herrietan.

Gerardo Munduate eta J.M. Mugica

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -



Telefonikako banatzaile ofiziala

ADSL ESKAINTZA

DUO 10 Mb

12 kuota 19,9€

DUO
ALTA
DOAN

MRI*
BARNE

12 hilabeteko konpromezua eta orain PACK MOVISTAR opari

TRIO FAMILIARRA 6 Mb

12 kuota 34,9€

ALTA + MRI
+ INSTALAZIOA
DOAN

MRI: modem, router, wifi

TRIO FAMILIARRE 10Mb

12 kuota 34,9€

ALTA + MRI
+ INSTALAZIOA
DOAN

Promozio epea otsailaren 7a.

Alan Griffin, Juanjo Otxandorena *Pepe* eta Arkaitz Miner aski ezagunak dira Hernanin, besteak beste, hilero Kixkalen jotzen dutelako Turlach taldearen izenean. Eta orain, berriz, Zigor Sagarnarekin, Aintzina taldea osatzen dute; eta laukoteak azaroan kaleratu zuen bere lehenengo diskoa: 'Suitian'. Kronikari azaldu diotenez, Euskal Herriko musika herrikoia bildu dute diskoan. «Eta grabaketa zuzenean egina dago, giro naturala lortzeko».

Aintzina taldea

«Euskal Herriko abesti narratibo tradizionalak bildu ditugu, inoiz argitaratu ez diren doinuekin»

BUZUKIA, mandolina, bibolina, alboka edota musukitarrarekin, besteak beste, musika irlandarra joz, makina bat ostegun girotu dituzte Kixkalen Juanjo Otxandorena *Pepe*, Arkaitz Miner eta Alan Griffinek Turlach taldearen izenean. Orain berriz, instrumentu berdinekin, baina musika ezberdinarekin eta kide berriarekin datoz. Zigor Sagarnarekin, Aintzina taldea osatu dute eta lehenengo diskoa kaleratu dute azaroan, *Suitian* izenekoa. «Euskal Herriko abesti narratiboak bildu ditugu», azaldu du Griffinek. «Letra batzuk aurkitu daitezke Hiru Truku taldean, baina doinuak, denak, argitaratu gabeak dira».

Doinu eta letra zaharrak bildu eta forma eman

Euskal Herrian sortutako aspaldiko letra eta doinuak aukeratu eta elkartuta sortu dituzte abestiak. «Batzutan, letrak azaltzen dira kantutegietan, baina doinurik gabe. Ez daukate doinu propiorik. Orduan Alanek egin duena da, letra hartu eta kontuan izanda nongoa den, zein garaitakoa eta batez ere, zein herrialdeakoa, bertako beste doinu bat hartu eta biak lotu», azaldu du Otxandorenak. Baina hor ez da amaitu beraien lana: «Ondoren guk konpondu egin dugu pixka bat. Forma eman diogu. Tartean sartu ditugu doinu batzuk, zubi bezala».

«Asmoa da ahaztuak dauden kantu zaharrak kaleratzea» Griffinen iniziatibatik sortu da



Zigor Sagarna (ahotsa, panderoa eta bajua), Pepe Otxandorena (buzukia), Arkaitz Miner (mandolina eta bibolina) eta Alan Griffin (haize tresnak), entsaio batean, ohi bezala, ondo gosalduta ondoren.

proiektua. «Herriz herri hitzak eta doinuak jasotzea, lan hori egina dago, eta gu ez gara horretan sartu. Alanek egin duena da batez ere, eginda dagoen kantutegi hori ikertu eta aukeraketa bat egin. Eta konturatu zen asko eta asko argitaratu gabe zeudela, eta okurritu zitzaion halako proiektu bat egitea. Gure lana, batez ere, hori da: ahaztuak dauden kantu zaharrak kaleratzea», azaldu du Otxandorenak. «Hori oso garrantzitsua da. Guk beti esaten dugu, horrelako taldeak ez daudela sobran», gaineratu du Griffinek.

Bildu dituzten doinuak oso zaharrak dira, orain dela 500 urtekoa zaharrena eta berriena duela 100 urte ingurukoa. Oinarritzat hartu dituzten kantutegiak honako egileenak izan dira, batez ere: Azkue, Aita Donostia, Zavala, Francisque Michel eta Salaberri.

Grabaketa zuzenean, giro naturala lortzeko Naturaltasuna da laukoteak proiektu honetan bilatu duena eta horretarako grabaketa zuzenean egin dute, toma oso batean. Hala azaldu du Gri-

ffinek: «ondoren gauza txiki batzuk zuzendu genituen, baina oinarria musika erreala da. Entzuten dena da jo genuena. Horregatik ia abesti denetan bakoitzak instrumentu bana erabiltzen dugu».

Instrumentuak ere naturalak direla azaldu dute. Eta Zigor Sagarna baju elektrotik akustikora pasa da «soinu naturala hartze arren».

Euskal musika, ez zelta

Halako musika tresnak jota, Turlach taldea tartean egonda, eta Griffin bera irlandarra izanda, askok eta askok musika zeltarekin lotu dezake beraien estiloa, «baina hori ez da horrela. Hori topiko bat da musika zeltaren inguruan sortu dena. Instrumentu jakin batzuk jotzeko badirudi zure estiloa bihurtzen duela zelta. Baina halako instrumentuak Europa osoan jotzen dira. Bibolina eta flauta trabesera (zeharkako xirula) esaterako, aspalditik jo izan dira hemen», argitu du Griffinek. «Guk euskal musika jotzen dugu, aipatutako instrumentu horiekin».

Martxoan Andoainean

Martxoaren 27an, Andoaingo Bastero kultur etxean joko du Aintzina taldeak, eta apirilaren 3an, Aste Santuan, Lleidan. Egun bat lehenago, berriz, Turlachen emanaldia izango da. II

'Suitian' disko berria

Suitian diskoa Joxan Goikoetxea musikari hernaniarrak zuzendutako Aztarna zigituarekin kaleratu du Aintzina taldeak. Bertan 15 abesti bildu dituzte. Zehazki 10 dira abestiak eta 5 instrumentalak. Eta instrumentaletatik 4, Alan Griffin taldekideak sortu ditu. Abesti narratibo tradizional argitaratu gabeak dira orokorrean, eta berriak diren horiek ere ukitu tradizionala dute, azaldu dutenez.

descanso
armarios

2010 merkealdia

Latex eta viscoelastica koltxoiak. Ohe artikulatuak eta motordunak

**Koltxoietan lehengoak gara.
Orain duzu aukera!**

Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:30 16:00 - 19:30
Larunbata: 10:00 - 14:00

zure koltxoi denda hernanin

15 urte atsedena eta armaruak neurrira zuri eskaintzen

Agustindarren, 6 (Eroski berriaren ondoan) • Tel.: 943 556 201

Solidaritatea, integrazioa eta kooperazioa lortzea da AMHER-en, Hernaniko Elkarte Multikulturalaren helburua. Beti ere, dibertsitatea errespetatuz. 6 urte daramazki etorkinen eta bertakoen artean elkarbizitza eta elkarlan proiektuak aurrera eramaten. Hamabost bat kidek osatzen dute elkarte eta denetari-

ko ekintzak antolatzen dituzte: hitzaldiak, afariak, zine zikloa... Aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen dute. 2009ko ekimenen balorazioa egin berri dute eta «balantze orokorra ona baino hobea» izan dela adierazi dute. Hala, etorkizunean, erronka berriei aurre egitea, baina ildo beretik jarraitzea da, beraien asmoa.

AMHER, Hernaniko Elkarte Multikulturala

Dibertsitatea errespetatuz, integrazioa helburu

Erika Elizari

NORBERE herrialdea atzean utzi, eta beste batera joaterakoan sortzen diren zailtasunei aurre egiteko laguntza eskaintzen du Amherrek. Horretarako, integrazio ekintza ugarietz gain, aholkularitza zerbitzuaren bidez, etorkinen arazoei irtenbideak bilatzen dizkie. Gestio horiek Latsunben duten egoitzan elkartuta, zein telefonoz burutzen ditu. Baina horretaz gain, hiru hilabetean behin, Hernaniko etorkin guztien etxeetara ere iristen dira; 'Kaixo' aldizkaria bidaltzen baitiete gaurkotatuzko gaien eta ekintza desberdinen inguruan informatzeko.

Elkartearen egoitzara hurbildu eta Amherreko kide diren Joxe Elizondok, Niko-k, eta Ane Iturbek, 2009ko ekimenaren balorazioaren eta etorkizuneko asmoen berri eman diote Kronikari.

2009ko balantze oso positiboa

2009ko ekimenen balorazioa egin berri dute eta «balantze orokorra ona baino hobea» izan dela adierazi dute. Urte osoan zehar burututako ekimenekin eta lanarekin oso pozik daude.

Bestalde, elkarteari dagokionez, aurtan ez dute bakarrik izan. Are gehiago, 3 partaide berri sartu dira eta atek zabalik daude euren helburuen alde egin nahi duen edonorentzat.

Taldeakideak hamabostean behin biltzen dira eta aurtan, berrikuntza gisa, etorkinekin aldiroko bilerak eginen hasi dira, herrian nahiz orokorrean



Joxe Elizondo eta Ane Iturbe, Amherreko kideak

egin beharreko ekimenak eta gaurkotatasa dute gaiak jorratzeko.

Hitzaldiak, afariak, zineforumak...

2009an zehar bestelako ekimenak eta giza sentsibilizazio lanak ere egin dituzte, kontuan hartzeko moduko partehartzea izan dutenak.

Horien artean, batetik, 100 pertsona inguru bildu zituen Biteriko botoen zesio ekimena nabarmendu dute.

Horretaz gain, ospatutako bazkari eta afarien arrakasta aipatzekoa dela diote: «jende asko erakartzen dute eta giro ona sortzen da». Azkenekoan esaterako, 50 lagun elkartu ziren.

Gainera, hitzaldi eta mahai-inguru bana antolatu dituzte, eta baita pelikula ikusi eta horien inguruan eztabaidatzeko zine ziklo bat ere.

Ekintza kulturalekin herria girotzten Ekimen horietaz gain, zenbait ekintza

kultural ere antolatu dituzte.

Apirilean ospatu zen jai gastronomikoan, mundu guztiko mokadu goxoak dastatzeko aukera izan zen eta Amherren iritzi, aurtengoa oso ondo ateratu da, izan ere: «etorkinen partehartzea eta herrialde desberdinetako plateren kopurua aregotu zen eta herriko jendearen aldetik oso erantzun ona jaso zuen».

San Joanetan ere, euren presentzia nabaria izan zen. Jaien aurreberoketa gisa, Senegalgo M-LOMP taldekoek Hernaniko kaleetan zehar, euren dantzak erakutsi zituzten. San Joan jaien barruan berriz, talde Bereber baten kontzertua eta umoregile batzuen ekitaldiak gozatu ahal izan ziren.

Azkenik, urrian, aste kulturalerako ekintza ugari antolatu zituzten: ipun kontaketa, txokolatada, Ansa ahizpen kontzertua, Hego Ameriketako dantzak eta lehenengo argazki lehiaketa.



Senegalgo M-LOMP taldea

Hernaniko biztanleriaren %5a etorkinek osatzen dute

Dora, Yamileth, Nelida, Fatima eta Sami, Hernanira iritsi ziren ia esistitzen zenik ere jakin gabe. Gaur egun, herriko biztanleriaren parte eta integrazioaren eredu dira.

Dora Ekna

«Dena eman didate Amherren: etxebizitza, lana eta erroldatzea»

Dora orain dela 11 urte irten zen Ghanatik, baina sei hilabete daramazki Euskal Herrian; izan ere, orainarteko urte guzti horiek bere senarrarekin batera Bartzelonan pasa zituen. Bere 3 urteko alabarekin batera, Billabonan bizi da. Baina bere bizitza Hernanin egiten du: herriko emakume bat zaintzen egiten du lan, bere alabak Elizatxon ikasten du... Beraz, hemen pixu bat aurkitzea gustatuko litzaioke.



Yamileth Colonia

«Hemen bat gehiago sentitzen naiz»

Jamileth-ek duela 4 urte Kolombiatik Hernanirako bidea hartu zuen ezinbesteko gastuentzat diru nahikoa emango zion lan baten bila. Hala, etxe bateko garbitzaile moduan lan egiten hasi eta horretan jarraitzen du. Lehenengo urtea gogorra izan zela dio, baina jendea ezagutzen joan den heinean, Hernanin geroz eta gusturako sentitzen da. Gainera, bi urte geroago, bere senarrak eta semeak etorri ahal izan zuten. Gaur egun, alkilerreko pisu batean bizi dira eta etorkizunean hemen geratzeko asmoa dute oraingoz.



Nelida Villegas

«Integratzeko lehenengo pausua norberak eman behar du»



Nelidak 3 urte bete ditu Hernanin. Txiletik etorri zen bere bikotekidearekin elkartzeko eta bere alabetako batekin bizi da, baina Txilen eta Estatu Batuetan beste bi seme ditu. Han, 20 urtez irakaskuntza-lanetan aritu bazen ere, hemen bi etxe eta liburutegia da bat garbitzen egiten du lan. Dena den, paperak lortu berri ditu eta oso pozik dago, errazagoa izango baita gustuko duen lan bat aurkitzea. Esaterako, ping-pongeko monitorea gisa; izan ere, Txileko irabazlea izan zen bi aldiz. Inguruko leku ugari bixitatu baditu ere, gehien gustatzen zaion herria Hernani dela dio: «asko maite dut Hernani eta hemen geratzeko asmoa dut». Gehien harritu zuena da, hemengo jendea asko ateratzen dela eta asko pasiatzen duela.

Fatima Nciri

«Etxe bat eta lan bat edukitzea bezain garrantzitsua da bakarrik ez sentitzea»

Hiru urte pasa dira Fatima Marokotik Madrilera garbitzaile lan-kontratu batekin iritsi zenetik. Baina bere benetako bokazioa gizarte-lana eta irakaskuntza dira. Hala, Loiolan dagoen adingabeko marokoarren zentru batean lana lortu zuen arte ez zuen etsi. Horregatik iritsi zen orain dela urte bete Hernanira, eta hasieran bere lekua topatzea zaila izan zela aitortzen badu ere, gaur egun, bere tankerako jendea ezagutu duela eta beti egiteko zerbitzu baduela dio. Gehien gustatzen zaiona, Donostiara joan eta pintxoak jatea da. Bestela, hemen ospatzen diren festa kopuruak harritu zuen gehien eta euskal-dunok kirol asko egiten dugula iruditzen zaio.



Tahar Sami

«Hemen etxean baino gusturago sentitzen naiz»



Tahar albertaria zen Aljerian eta bizitza eroso bat zuen bertan. Baina bere herrialdeko ezegonkortasunari ihesi eta bere ikasketak sakontzeko ilusioz, Zaragozara iritsi zen orain dela 4 urte. Han diskriminazio ugari zegoela dio eta horregatik, orain dela bi urte, Euskal Herria etorri zen. Hernanin oso gustura bizi da eta hemen geratzea da bere asmoa. Gainera, bakarrik etorri bazen ere, orain bere emaztea hemen dago eta etorkizunean seme-alabak hezteko leku egokia iruditzen zaio. Euskal kultura oso gustukoa du; bereziki, euskal familien antolaketa.

LANGILE IKASTOLA

Matrikula zabalik (2-16)

otsailaren 1etik 12ra Non: Laubidietan
Orduetgia: 9:00-13:00 eta 14:30-17:30

MEABE ikastetxea bisitatzeko aukera, otsailaren 8tik 11ra.
goizez: 10:00 - 11:30 eta arratsalde: 15:30 - 18:00.
Ostiralean, inauteriak direla eta, ezingo da bisitarik egin.

Tel.: 943 555 423 www.langile.com laubidieta@langile.com

Inmakulada Ikastetxea

direccion@lainmaculadahernani.com 943 559233 Sandiusterrri, 4

MATRIKULAZIO EPEA	HEZKUNTZA ESKAINTZA
Otsailaren 1etik 12ra	Haur eskola 0-3 urte
	Haur hezkuntza 3-6 urte
	Lehen hezkuntza 6-12 urte
	Bigarren hezkuntza 12-16 urte
Irakazleekin egoteko	12:00-13:00
	16:00-17:00
Idazkiritza	9:00-13:00
	14:00-17:00

Erizain laguntzailea EIMHZ
OSTE ZERBITZUAK
Jangela zerbitzua
Zaintza goiztiarra 8:00-9:00

www.lainmaculadahernani.com

URUMEA IKASTOLA

Haur Hezkuntza (2-6), Lehen Hezkuntza (6-12)

Matrikula: **otsailaren 1etik 12ra bitarte**

Non: **Urumean (Gay Mur eraikina, Laramendi 18)**

Orduetgia:
09:00 - 12:00 / 14:30 - 16:00
943 55 04 72

Etor zaitetz eskola ikustera!

"TXIRBITA" - EREÑOTZU

Matrikula:otsailaren 1etik 12ra
Telefonoa: 943 554256

Jangela badaukagu

Vanesa eta Miguelo Harategia

Aukera ezinhobea !!
Asteburu honetan
Egin zure enkargua !!
Gaur, larunbata arratsaldez itxita !!

AURREZ EGINDAKO JANARIAN (PLATOS PRECOCINADOS)
AUKERA ZABALA!!...ETA ENKARGUZ:

KARAKOLAK 9,50€ **OILASKO ERREA 6,00€**

Laramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

◆ GIMANSIA ERRITMIKOA

Kurtso hasierako erakustaldia egingo dute bihar Kiroldegian

Erakustaldia goizeko 11:30etan hasiko da, eta eguerdiko 13:00ak arte luzatuko da.

HERNANIKO Gimnasia Erritimiko elkarteak kurtso hasierako erakustaldia egingo du bihar kiroldegian. Erakusketa Hernaniko kiroldegian izango da, goizeko 11:30etatik eguerdiko 13:00ak arte.

Bertan, parte hartuko dute 2001garren urtean edo lehenago jaiotako haurrek; hau da, benjamin, alebin, infantil, kadete eta jubenil mailakoek.

Gimnastentzako oharra

Gimnasia elkartetik adierazi dutenez, erakustaldian parte hartuko duten

neskek kiroldegian egon beharko dute 10:15etarako; beroketa ariketak eta tapiz paseak egiteko. Elkartetik eskatu diete garaiz iristeko, eta bixiak (eraztunak, kateak...) etxean uztea.

Partehartzaileek erakusketa egiteko ondorengoak eraman beharko dituzte bihar: maillota, gonatxo, punterak, elkarteko txandala, beroketak egiteko arropa (galtzerdiak, kuloteak...), sarea, gantxoak gomina eta koleteroarekin ondo lotutako moinoa. ||

◆ FUTBOLA

Hernanik Hondarribia hartuko du gaur Zubipen

Partidua arratsaldeko 16:30etatik aurrera jokatuko da. Emakumezkoen ligan, Hernani-Beasain bihar, etxean.

HERNANIKO bi talde nagusiek Zubipen jokatuko dute gaur eta bihar. Arratsaldean, 16:30etan, Ohorezko Erregional mailako taldeak jokatuko du, Hondarribiaren kontra. Emakumezkoen ligako taldeak bihar jokatuko du, 16:30etan, Beasainen kontra.

Hernani-Hondarribia arratsaldean

Joan den asteburuan galdu ostean, Hernanik aukera paregabea du gaur hura ahaztu, eta garaipen berri bat lortzeko. Hondarribiaren kontra joka-

tuko du, sailkapenean bost postu atzerago dagoen taldearen kontra. Hernani 10garren dago, 22 punturakin, eta gaur irabaziz gero, hiru postu igo daiteke.

Hernani-Beasain eguerdian

Emakumezkoen ligako taldeak Beasainen kontra jokatuko. Igoera faseko partidua izango da gaurkoa, eta orain arteko partiduetan, emaitza parekatuak lortu dituzte bi taldeek. Hortaz, partidu berdindua espero da. ||

◆ WATERPOLLOA

Hernanik Oiassoren kontra jokatuko du gaur, Irunen

Hernaniko waterpolo taldeak, senior mailan jokatzen duenak, Irunen izango du partidua. Oiasso taldearen kontra jokatuko du, gaur, arratsaldeko 20:00etan hasita.

Hernaniarrak hirugarren dira sailkapenean bost punturakin, eta bigarrenen daude Oiassokoak, zazpi punturakin. Beraz, partidu lehiatua izatea espero da.

Horrez gain, jubenilek ere izango dute partidua asteburuan. Iruñean jokatuko dute, WP Navarra taldearen kontra, gaur, goizeko 10:30etan hasita.

Azkenik, nesken taldeak ere gaur izango du partidua, Iruñean baita ere. Tajonar taldearen kontra jokatuko dute, arratsaldeko 18:30etatik aurrera. ||

◆ ERRUGBIA

Bartzelonan jokatuko du Hernanik, bihar eguerdian

Urrezko kopako partidua ostean, ligari helduko dio berriz ere Hernanik asteburu honetan. Bartzelonara joan dira, bertako taldearen kontra jokatuko baitute bihar. Partidua Teixonera zelaian izango da, eguerdiko 12:30etatik aurrera.

Kadete mailari dagokionez, Euskal Ligako partidua izango dute hauek. Etxean jokatuko dute, Landaren, Uribealde taldearen kontra. Partidua goizeko 11:30etatik aurrera.

Azkenik, infantilek lagunarteko partidua izango dute. Valladolideko torneoak jokatuko dute, Pepe Rojo zelaian, gaur, goizeko 10:30etatik aurrera. ||

◆ ARETO FUTBOLA

Yone Boutiquek Gorka Pinturas Makax taldearen kontra neurtuko da gaur, kiroldegian

Partidu zaila izango du gaur Yone Boutique taldeak. Gorka Pinturas Makax taldearen kontra jokatuko du. Sailkapenean atzetik doan taldea da, baina Julen Giralderen esanetan, kalitatezko jokalar asko dituzte: «aspalditik ezaguna den taldea da, eta joaneko partiduan, lan asko egin ostean irabazi genien». 16:15etan hasita. ||

Aidur-Aratz gaur Amaran

Aidur taldean Aratz taldearen kontra jokatuko du gaur, Amarako Paco Yoldi kiroldegian, 16:00etan hasita. Mailaz igo nahi izanez gero, irabaztea ezinbestekoa dute. ||



Abenduan, Karabelgo gasolindegian Berriak txartela erabili dutenen artean, 32"ko Samsung Telebista zozketatu zen urtarrilaren 16an.

SARITUA
PAKI ROMAN DE LA FUENTE
izan zen.

ZORIONAKII

Astlehenean jaso zuen Paki Romanek irabazitako telebista, Karabel gasolindegian bertan. Tomasek (Berriak elkarteko ordezkaria) eta Xabier Garmendiak (Karabel gasolindegiko ordezkaria) eman zioten saria.

◆ PELOTA

Berria txapelketako lehenengo errondako azken kanporaketa jokatu da bihar kiroldegian

Txukun Lakua eta Igorrek jokatu dute, 10:30etatik aurrera.

BERRIA txapelketa jokoan da, eta bihar partidua izango da kiroldegian. Txapelketako aurreneko erronda bukatzean da, eta Hernaniko partiduan azken kanporaketa jokatu da.

Aurrez aurre izango dira Txukun Lakua (Gasteiz) tal-

dea eta Igorre taldea. Kadetetan Calleja eta Ramosek jokatu dute, Mendia eta Etxebarriaren kontra. Jubeniletan Isasmendi eta Obregon Ilak Gomez eta Cilaurren izango dute aurrean. Eta azkenik, senior mail-

lan, Castillo eta Resanok Markina eta Lekuereen kontra jokatu dute.

Kanporaketa oso berdindu izatea espero da, batez ere senior eta kadete mailan. Jubeniletan arabarrak dira faborito. ||

◆ PELOTA - BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA

Mendizabal eta Olaizola, Gonzalez eta Laskurainen kontra gaur, final laurdenetan

Partidua Labriten jokatu da, 18:30etatik aurrera.

BINAKAKO txapelketako partidua garrantzitsua izango dute gaur Mendizabal eta Olaizolak, irabaztea ia ezinbestekoa baitute. Ligaxka jokatzeko ari dira, eta oraingoz, jokatu dute 3 partidue-

tatik bakarra irabazi dute, 22-18, Xala eta Zubietaren kontra.

Gaurkoan, Gonzalez eta Laskurainen kontra jokatu dute, arratsaldeko 18:30etan, Irueñeako Labrit pelotalekuan.

Sarrerak salgai

Partidurako sarrerak www.asegarce.com web horrian eros daitezke. Merkeenak 15 eurokoak dira, eta garestieneak 30 eurokoak. ||

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA

F. Oñorezko Maila
L. Erregionala
Jubenila. L. nazionala.
Jubenila. L. maila.
Jubenila. L. maila.
Kadeteak. O. maila
Infantilak
Infantil Txiki
Fmuk. liga. Igoera
Fmukumezkoen liga

Hernani Hondarribia
Hernani-Mondragon
Durango-Hernani
Mundarro-Hernani
Kostkas-Hernani
Hernani-Amara Uerri
Mundarro Hernani
Antiguoko Hernani
Tokosa Hernani
Hernani Beasain
Hernani Anañasuna

Zubipen
Zubipen
Iariban
Zarkumendegin
Gaur 11:00
Matigoxotegin
Zubipen
Zarkumendegin
Berion
Usabalen
Zubipen
Zubipen

Gaur 16:30
Gaur 18:30
Bihar 12:15
Gaur 11:00
Bihar 11:30
Bihar 11:00
Bihar 17:00
Gaur 11:00
Bihar 16:30
Gaur 17:15

ARETO FUTBOLA

1. maila Yone Boutique Gorka pinbur.
2. maila Aratz Aidur

Kiroldegian
Paco Yoldin

Gaur 16:15
Gaur 16:00

SASKIBALOA

Seniorkak
Kadeteak
Kadeteak

Hernani Kostkas
Hernani Ioiola Indaibau
Hernani Gantbara

Hernanin
Hernanin
Hernanin

Gaur 18:00
Gaur 16:15
Bihar 10:00

BOLEIBOLA

Seniorkak neskak
Seniorkak mutilak

Hernani-Navarrocy
Hernani-U. de la Ríoja

Kiroldegian
Kiroldegian

Bihar 10:00
Bihar 11:30

WATERPOLOA

Seniorkak
Jubenilak
Neskek

Hernani-Olaso
Hernani-WP Navarra
Hernani-Tajonar

Iruñean
Iruñean
Iruñean

Gaur 20:00
Gaur 10:30
Gaur 18:30

PELOTA-Berria txapelketa

Seniorkak Castillo Resano/Markina I ekue
Jubenilak Isasmendi Obregon II/Comer Cilaurren
Kadeteak Calleja Ramos/Mendia Ftxeberria

PELOTA-Gipuzkoako Txapelketa

Kadeteak Alhuna I uranbio II/Añorga
Kadeteak Inburre A/Fbejoien Garcia
Kadeteak Inburre B/Urkiu Murjondo
Jubenilak Arkupe/Santxo Aizpitarte
Seniorkak Ojuel Garjal/Trutzun
Infantilak Otaegi Fsnola/Oiarpe

PELOTA-Paleta

Pagola Sempere/Tapia Aizpuru
Urdangarin Arizaga/Tejada Ansotegi
Izreaga Perez/I ukas Goenaga
Pagola Zabala/Mariñelarena Urtasun
Tijero Ugaldes/Sanz Okariz
Trazustabarrena Mendizabal/Agirre Aristorena

ERRUGBIA

Seniorkak Barzelona Hernani
Kadeteak Hernani-Uribaldoda
Infantilak Valladolid Torneoa
Alcibinak Gipuzkoako Bilkura-ICRC

Hernanin Gaur 10:30
Hernanin Gaur 10:30
Hernanin Gaur 10:30

Hernanin Gaur 16:00
Alegian Gaur 16:30
Alegian Gaur 16:30
Gernikan Gaur 17:00
Hernanin Gaur 16:00
Iruñean Gaur 15:00

Mallabian Gaur 16:00
Mallabian Gaur 16:00
Gasteiz Gaur 17:00
Gasteiz Gaur 17:00
Orion Gaur 16:00
Orion Gaur 16:00

Teixorenan Bihar 17:30
Landaren Gaur 11:30
Pepe Rojan Gaur 10:30
Arrasaten Bihar 10:30

◆ XAKEA

Zarautzen eta Grosen partidak

Xake txapelketa aurrera doa, eta Hernaniko bi taldeek izango dituzte partidak. Hernani A-k Zarautz B-ren kontra jokatu du, Zarautzen.

Hernani B-k berriz, Gros E taldearen kontra jokatu du, Grosen. ||

◆ ATLETISMOA

Maitane Iruretagoyena Balentzian

Maitane Iruretagoyena Balentzian da, asteburu honetan Espainiko Erregina kopan hartuko baitu parte. Atletiko San Sebastian taldearekin joan da, eta 60m-ko proban hartuko du parte. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatu dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

LEHENENGO URTEBETETZEA

† Bittor Otxotorena Oiarbide

JAUNA
(Felipa Huiziren alarguna)
2009ko otsailaren 1ean hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Seme-alabak: Juani eta Gregorio, Jose Ignacio eta Koro, Jose Manuel eta Idoia, eta Mari Karmen; bilobak: Arkaitz, Maitane eta Gaizka, Jon, Iñaki eta Mikel, Amaia eta Miren; anai-arrebak: Manoli eta Miguel (+), Maria eta Cesareo; ezkon anai-arrebak: Carmen eta Ramon (+), Ramon eta Mari Carmen, Manuel, Nikolas (+) eta Mari Carmen, Maria Jesus eta Jose Maria (+); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **10:00etan**, Erefiotzuko **SAN ANTONIO** parroki elizan egingo den **Urtebetetzeko Mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Erefiotzuz, 2010eko urtarrilaren 30ean

Helbidea: Olazar baserria



LEHENENGO URTEBETETZEA

† Maria Iradi Elola

ANDREA
(Juan Garinen alarguna)
2009ko urtarrilaren 31n hil zen, Hernanin, 95 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Seme-alabak: Maria Teresa eta Jose Manuel Garcia, Simon eta Cristina Elustondo eta Maria Isabel; bilobak: Jon eta Elena, Mikel eta Elisabeth, Imanol eta Mari Carmen eta Miren; birlobak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela **BIHAR, IGANDEA**, eguerdiko **12:00etan**, **SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den **Urtebetetzeko mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernani, 2010eko urtarrilaren 30ean

Helbidea: Nagusia, 57 - 3. Esk.



LEHENENGO URTEBETETZEA

† Isabel Mendizabal Zubeldia

ANDREA
(Pedro Etxeberriaren alarguna)
2009ko urtarrilaren 18an hil zen, 96 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.
Eta inoiz itzaltzen ez delako,
gogoan zaitugu.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **12:00etan**, **SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den **Urtebetetzeko mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko urtarrilaren 30ean



FUNERARIA
ORBEGOZO
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Eguzte**: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauze**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA ● **GAUR** Itsasaldetik sartutako lainoek zaparradak utziko dituzte egun guztian zehar. Elur-kota 1000 m-ren inguruan ibiliko da eta temperatura jaitsi egingo da. Min.5° / Max.8°.
● **BIHAR** Zaparradekin jarraituko dugu eta elur-kotak behera egingo du. Arratsaldean baliteke 500 m-ra jaistea. Min.4° / Max.7°.



◆ TXANTXANGORRI ELKARTEA

XLII Binakako Mus Txapelketa			XXIV Banakako Mus Txapelketa	
Otsailak 1, astelehena	Otsailak 2, asteartea	Otsailak 3, asteazkena	Otsailak 4, osteguna	Otsailak 5, ostirala
Mauri-Txanpi/Pepe-Jose Martin	Emilio-Ibon/Txitxo-Aritz	Jose Lis.-Antxon/Gofi-Bilbao	Monroy II/Aritz Fernandez	Juan M. Goikoetxea/Enrike Esteban
Bixente-Julio/Etxami-Enrike	Albert-Pedro/Pablo-XXX	Lucas-Lapazaran/Jose Leon-Patxi	Ibon Dominguez/Bixente Gofi	Bixente Goikoetxea/Javier Oskoz
Larrañaga-Goikoetxea/Jesus-Iñigo	Mikel-Jose/Carlos-Javi	Monroy II-Txato/Pablo-Niko	Jose Leon/Fernando Galan	Errepeskak: otsailaren 10 eta 11n.
Zezi-Bitxo/Jonkar-Joseba	J. Otaegi-F. Galan/Pineda-Luis	Esnal-Arregi/Javier-Pello	Pablo Ruiz/Emilio Crespo	
Errepeskak: otsailaren 8 eta 9an.			Juan Otegi/Jose Etxami	

Honakoak dira lehenengo kanporaketan jokatu diren partidak.

Batekoak eta erregeak prest!

Binakako mus txapelketa etzi hasiko da eta banakakoa ostegunean.

TXANTXANGORRI elkartearen mus txapelketak hasteko guztia prest dute. Astelehenean bertan ekingo diote binakako txapelketari, aurten 42garren urtez. Eta banakako 24garren edizioa ostegunean hasiko da.

Binakako txapelketan 24 bikote hartuko dute parte lehenengo kanporaketan. Kanporaketa hori astelehenetik asteazkenera bitarte jokatu da; egun bakoitzean launa partida. Errepeskak partidak, berriz, otsailaren 8 eta 9an jokatu dira.

Banakakoan 14 pertsona lehiatuko dira lehenengo kanporaketan. Ostegun eta ostiralean izango dira partidak. Lehenengo egunean bost

Binakako txapelketan 24 bikote hartuko dute parte lehenengo kanporaketan. Partida horiek astelehenetik asteazkenera bitarte jokatu dira; egun bakoitzean launa.

Banakakoan 14 pertsona lehiatuko dira lehenengo kanporaketan. Ostegun eta ostiralean izango dira partidak. Lehenengo egunean bost eta ostiralean bi.

izango dira eta ostiralean, bi. Errepesako partidak otsailaren 10 eta 11n jokatu dira.

Eper eta faisanoz ehizaldiak otsaileko larunbatetan
Mus txapelketez gain, Txantxangorri elkarteak eper eta faisanoz ehizaldiak antolatu ditu otsaileko lau asteburuetarako. Arabako koto industrial batean izango dira. Nahi duten ehiztariak parte hartu dezakete ehizaldietan, eta horretarako Txantxangorri elkartearen eman behar dute izena. Txantxangorriko bazkideek irteera bat subentzionatua daukate. Informazio gehiago elkartearen bertan emango da. **II**

MERKEALDIA

AZKEN PREZIOAK

UMEEN ARROPAK	%50
EMAKUMEAREN MODA	%50
MENDIKO JANTZIAK	%30 - %40

Nafar kalea 23
- 943 33 37 24 - HERNANI

Atez ateko zalantzak argitzen

Zein dira errauste-plantik jaurtitzen dituen substantzia kaltegarrienak?

Manganesoa, manganeso altzairua, kromoa, nikela, arsenikoa, merkurioa, beruna eta kadmioa.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

- Pisua salgai Karabelen.** 60m², 2 logela, sala, sukalde eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.
- Pianoa salgai.** Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoa. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.
- ETXKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**
- Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta berberala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**
- Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berberala, reflexologia, auriculoterapia...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

www.salesianosurnieta.com

Tfnoa. 943 55 17 89

SALESIANOS Urnieta

SALESIARRAK

DBH

Unibertsitate edo lanean hasi arte giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...

zatoz,

Batxilergoa
Teknologikoa / Natur-Osasu Zientziak / Humanistikoa
Lanbide Heziketa
Elektrizitatea/ Elektronika / Mantenimendua / Grafikagintza

Puertas abiertas:
6 de Febrero - 11:00h

Ateak zabalik:
Otsailak, 6 - 11:00

Aurreinskrizioak: otsailak 1-12